

ODEOIKO JAIALDIAK:

San Anton eguneko jaialdi handiak

San Anton eguna egun handia izaten zen, bai herritarrentzat eta baita Elgoibarko Izararentzat ere. Santa Ana kalean zegoen Odeon zinean izaten zen zita.

San Anton egunean, edo bezperako gauean, Odeoiak gainezka egiten zuen. Plaza Handira arteko kolak ikustea ez zen batere arraroa izaten. 1.000 lagunentzako kabida zuen zineak, eta eserleku guztiak bete ostean, pasilloetan ere makina bat lagun egoten zen.

Eszenarioan, berriz, Elgoibarko Izarraren eskoletan zebiltzan ume eta gaztetxoak ikus zitezkeen: dantzariak, txistulariak, baletakoak, ... eta hauek denak errenditu ezinik irakasle eta andereñoak.

Euskal dantzek leku garrantzitsua izaten zuten jaialdian. Kolorea eta mugimendua ematen zioten jaialdiari. Baletakoak hanka-puntetan irteten zirenean, berriz, jendea adi-adi egoten zen dantzarietara begira. Fina izaten zen, diferentea. Txistulariak ere gustura irteten ziren kaikua jantzi eta txistua eskuan zutela. Entzuleen belarriak gozatzeaz arduratzen ziren. Eta, amaitzeko, izaten zen gitarra-hotsik ere, antzerki txikiren bat, kantuak. Denetik izaten zen Odeoian, eta jende oso gustura irteten zen San Anton egunari, sasoi hartan, zegoen bisigua jateko amorratzen.

Ume eta gaztetxoak ziren jaialdiko protagonistak, eta urtean zehar ikasitakoa jende aurrean erakusteko eguna izaten zen. Urte osoko lanaren eskaparatea zen Odeoiko jaialdia. Umeak urduri, irakasleak dena ondo irteteko arduratuta, eta gurasoak butaketan kabitu ezinik, emozionatuta.

1966an hasi zen Elgoibarko Izarra Odeoiko jaialdia antolatzen. Azken jaialdia, berriz, 1978 urtearen bueltan izan zen.

*Odeoiak gainezka egiten
zuen San Anton Egunean.
Plaza Handira arteko kolak
ikustea ez zen batere
arraroa izaten.*



1966an antolatu zuen Elgoibarko Izarrak estreinakoz Odeoiko jaialdia.



Dantzek leku berezia izaten zuten jaialdi horietan.



Baina baletari ere merezi zuen tokia egiten zitzaion.



Arrietatarrak ere izan ziren urte batean kantuan.



Antton Aranburu gitarrarekin, Lurdes eta Agurtzane lagun hartuta.



Eta, amaitzeko, antzerki herrikoia: Pako, Anjel eta Patxi aktore lanetan.